

2016KO MEMORIA

EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

HIRIAK ETA ESKUALDEAK
BATERA NAZIOARTEKO LANKIDETZAN

GETXO

Jornada

GARANTIZAR MODALIDADES DE CONSUMO Y PRODUCCIÓN SOSTENIBLES A NIVEL LOCAL

Experiencias innovadoras
en la gestión de alimentos

24 DE NOVIEMBRE DE 2016

Getxo Elkartegia, Areeta
GETXO - BIZKAIA



Organizadores:



Financiación:



AURKIBIDEA


I. GETXOKO UDALAREN 2016KO LANKIDETZAREN IKUSPEGIA.....	2
1.1. Helburuak.....	2
1.2. Datu orokorrak	3
II. LANKIDETZA-PROIEKTUAK.....	6
2.1. Diru-laguntzen urteko deialdia.....	6
2.2. VIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa	11
2.3. Euskal Fondoarekiko hitzarmena.....	11
2.3.1. 2016 proiektua.....	12
2.4. Garapenerako lankidetzaz-proiektuen distribuzio geografikoa	13
III. GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO EDOTA SENTSIBILIZAZIORAKO PROIEKTUAK	15
3.1. Diru-laguntzen deialdia.....	15
3.2. Zuzeneko betearazpena	17
3.2.1. Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2016	17
3.2.2. Getxotik Mundura jokoa	18
3.2.3. Hegoafrikako ikasleen harrera	18
3.2.4. Bidezko Merkataritza.....	18
3.2.5. European Days of Local Solidarity: Kontsumo eta ekoizpen-eredu iraunkorrak sustatzea tokian-tokian	21
3.2.6. Jambo Amani?.....	21
3.2.7. VIII. Nazioarteko Zinema Ikusezinenaren Jaialdia, "Film Sozialak": Aipamen berezia dokumental honi: "Anekaleko Balajyhoty Hostelak", Taldeka Lagunduz	22
IV. HARRERA	23
4.1. Diru-laguntzen deialdia.....	24
4.2. Getxo Pro Sahara ATFAL elkartearekiko hitzarmena.....	24
4.3. Zuzeneko betearazpena	25
V. EKINTZA HUMANITARIOA	26
5.1. Sahararekiko Elkartasunezko Euskal Karabana.....	26
5.2. Siriako krisia	26
5.3. Lurrikara Ekuadorren.....	27
VI. GETXOKO GGKE-AK SENDOTZEA	28
VII. BESTE JARDUERA BATZUK.....	29
7.1. Egin diren bestelako jarduerak.....	29
VIII. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO LANTALDEA.....	30

I. GETXOKO UDALAREN 2016KO LANKIDETZAREN IKUSPEGIA

1.1. Helburuak

2012-2015eko Legealdi Planean jasota dagoen moduan, Garapenerako Lankidetzako Sailaren helburu estrategikoa Getxoko Garapenerako Lankidetzako programa indartzea eta bultzatzea da. Horretarako, ekimen hauek garatzen dira:

- ✓ Udal-aurrekontuko diru-sarreraren % 0,7 Garapenerako Lankidetzari esleitzea.
- ✓ Herrialde txirotuak, ekintza humanitarioa eta garapenerako hezkuntza xede dituzten proiektuei diruz laguntzea.
- ✓ Bidezko Merkataritza eta Erosketa Etikoa bultzatzea.
- ✓ Getxoko GGKEen sarea indartzea.
- ✓ Lankidetzaren Laneko Lantaldetik koordinazio- eta aholkularitza-egitekoa bultzatzea.
- ✓ Kultura-eskubideekin zuzeneko harremana daukaten kooperazio-politika berritzaileak bultzatzea.
- ✓ Euskal Fondoan parte hartzea, proiektuak finantzatuz eta haren zuzendaritza-batzordean parte hartuz.
- ✓ Saharako herriaren aldeko politikak bultzatzea eta Oporrak Bakean programa garatzen jarraitzea.
- ✓ Jarraipen-lanak egitea eta proiektuak ebaluatzea.
- ✓ Herritarrei Getxotik Mundura Mundutik Getxora ekimenaren bidez lankidetzan egindako lanaren berri ematea.
- ✓ Sentsibilizazioko eta garapenerako lankidetzako proiektuetan genero-ikuspegia bultzatzen jarraitzea.
- ✓ Garapenerako lankidetzaren arloan diru-laguntzak ematerakoan genero-ikuspegia irizpide gisa aintzat hartzea.
- ✓ Sentsibilizazio-kanpainen bidez emakumeen munduko egoerak ezagutzera ematea.
- ✓



2016an onartu da 2016-2019 Legealdi Plan berria eta aurrekoak baino soilagoa den arren, Lankidetzaren arloan zedarriz nagusi hau du:



- ✓ % 0,7 lortzeko bidean aurrera egiteko konpromisoa, herrialde txiroenekin dauden garapenerako lankidetzaren programetara bideratutako aurrekontu esleipen modura.

1.2. Datu orokorrak

2016an, Lankidetzaren Sailak gauzatutako aurrekontu osoa **600.777,70** euro izan da. Egin dituen ekintza nagusiak hauek izan dira:

- **Diru-laguntzen deialdia: 391.737** euro, proiektuetarako diru-laguntzen urteroko deialdia:
 - 12 lankidetzaren proiektu, guztira 319.500 euroko zuzkidurarekin
 - 4 sentsibilizazio-proiektu, guztira 59.037 euro.
 - Europa Ekialdeko haurrak hartzeko 2 proiektu, 1.200 euro.
 - Larrialdi humanitarioko 2 proiektu, 12.000 euro.
 - 47.700 pertsonak (27.800 emakumeak) hobekuntzak izan dituzte osasunarekin, hezkuntzarekin, emakumearekin eta garapenarekin, urarekin, hezkuntzarekin eta nekazaritzarekin zerikusia daukaten gaietan.
- **56.618** euro, Euskal Fondoarekiko hitzarmena.
- **36.000** euro, Saharako errefuxiatuentzako laguntza.
- **6.000** euro, Siriako errefuxiatuentzako premiazko laguntza.
- **6.000** euro, Ekuadorrerako premiazko laguntza, lurrikararen ondoren.
- **35.428** euro, XIX. Getxotik Mundura Mundutik Getxora.
- **14.874** euro, Getxoko GGKEak indartzeko diru-laguntzen deialdia.
- **6.000** euro, beste sentsibilizazio jarduerak, besteak beste “Getxotik” jokia nabarmendu behar da www.getxotik.org

Hala ere, Udaleko beste sail batzuekin eginiko elkarlanak ere kontuan izan behar dira. Ekintza horiei esker, lankidetzari esleitutako baliabideak nabarmen gehitu dira.

Gainerako sailak, lankidetzarekin elkarlanean aritu diren Udaleko erakunde autonomoak, honako hauek izan dira: Aukera Berdintasuneko Saila, Getxo Kirolak, Getxoko Kultur Etxea, Getxolan, Komunikazio eta Kontratazio Saila.

Sail horiek esleitutako baliabideak ez dira bakarrik ekonomikoak; aitzitik, sail horietako langileek proiektu horietan eman duten denbora ere aintzat hartu beharko litzateke.


Baliabideen esleipena, diru-laguntza deialdien bidez, hitzarmenen bidez eta zuzenean betearaziz, hauxe da, lankidetzaren sektoreen arabera banatuta:

1. taula

Sektorea	Euroak
Hegoaldeko lankidetzaren proiektuak	376.118,00 €
Sentsibilizatzeko eta garapenean hezteko proiektuak	94.465,00 €
Ekintza humanitarioa	33.000,00 €
Harrera egitea	16.200,00 €
Getxoko GGKEak indartzea	14.874,00 €
Guztira	534.657,00 €


Jarraian, 1. grafikoan, sektoreen arabera banaketa jaso dugu, ehunekotan duten ordezkartzaren arabera. 2016ko datuak aurreko urtekoen oso antzekoak dira.

1. grafikoa




2. grafikoa Lankidetzaren Sailaren 2008tik 2016rako aurrekontu-bilakaera dago. Ikus daitezenez, 2008 eta 2009 bitartean aurrekontua nabarmen hazi zen, eta hurrengo 4 urteetan finkatuta geratu zen. 2013an, joera aldatu egin zen udal-sail guztietan gertatu ziren aurrekontu-doikuntzen ondorioz, nagusiki diru-laguntzei eragin baitzieten. Egoera horrek bere horretan jarraitu zuen 2015ean. 2016an aurrekontua hazi egin da eta 600.000 eurora iritsi da.

2. grafikoa



3. grafikoa, udalak lankidetzaren proiektuei esleitzen dien aurrekontuaren ehunekoaren bilakaera azaldu da.

3. grafikoa



3. grafikoa islatzen denez, Lankidetzarako aurrekontuaren bilakaeran hazkunde nabarmena ikusten da 2009ko partidaren eta 2012ra mantendu da. Baina 2013an zenbateko hori txikitu egin zen, hala ere, 2008ko partida baino handiagoa izan zen portzentajeari begiratuz gero, baina ez bideratutako kopuru osoari begiratuz gero; udal-sarrerak txikitu zirelako gertatu zen hori. 2015ean, ehunekoa arin handitu zen, kontu-sailaren zenbatekoari eutsi arren, diru-sarrera murriztu egin baitzen. 2016an partida hazi egin zen eta % 0,7ra iritsi zen.

II. LANKIDETZA-PROIEKTUAK

Kooperazio-proiektuak bi modutan esleitzen dira. Lehenengoa diru-laguntzen urteko deialdia da. Bigarren bidea, aldiz, horretarako kooperazio-eragileekin sinatutako hitzarmenak dira. Jarraian, 2016an finantzatutako proiektuak aurkeztuko ditugu, laburbilduta.

2.1. Diru-laguntzen urteko deialdia

2016an, herrialde txirotuetako lankidetzaz-proiektuetara 319.500 euro zuzendu dira guztira eta jarraian zehaztutako 10 proiektu finantzatu dira.

Proiektua	<i>Telema Osasun Mentaleko Zentroa</i>	Herrialdea	Kongoko E.D.
Emakumeak	37.200	GGKE	ECCA Romo
Laguntza	9.000,00 €	Guztira	21.000,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Telema Osasun Mentaleko Zentroan kokatzen da, Kinshasan, Kongoko Errepublika Demokratikoan. Zentroak osasun-arreta ematen die buru-nahasmenduak dauzkaten pertsonen, eta prestakuntza ematen die haien familiei eta osasun-agentziei. Horrez gain, lantegi bat dauka patologia larriagoak dituzten pertsonen eskulanak egiteko. Eguneko zentro oso batek bezala funtzionatzen du, prestatutako janaria hantxe bertan eskainiz. Era berean, emakumeentzako harrera-zentro bat dauka; horren helburua kalean abandonatuta dauden emakume buru-gaixoei laguntzea da. Buru-gaixoa babesgabe dago, animismoa nagusi delako, eta, beraz, egoera negatiboen errudunak dira. Gainera, zentroko pazienteak gatazka armatu bat pairatu dute eta depresioak zein gaixotasun mentalak dituzte. 2016rako emaitza hauek lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Buru-gaixoei arreta, diagnostikoa eta tratamendua ematea eta haien jarraipena egitea. 2. Familiei eta osasun-eragileei prestakuntza ematea gaixotasun mentalak dauzkaten pertsonak detektatzeko eta haien jarraipena egiteko. 		




Proiektua	<i>Kanseniako Kapiri sektorean eskolatzea</i>	Herrialdea	Kongoko E.D.
Emakumeak	1.300	GGKE	San Martín de Tours misio-taldea
Laguntza	46.000,00 €	Guztira	101.202,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Katanga probintzian kokatuta dago, Kansenia eskualdeko Kapiri herrian. Katangako hiriburua Lubumbashi da eta 1.700.000 biztanle ditu; Katangak 4 milioi pertsonako biztanleria dauka. Iraupeneko nekazaritza da ekonomia-jarduera nagusia. Herrialdeko egoeraren ondorioz, ezin da bermatu umeen eskolatzea. Estatuak ez du dirurik inbertitzen eskolak eraikitzeko, batez ere oihanetan, eta irakasleek ez dute soldatarik jasotzen. Proiektuak biztanleriaren bizi-kalitatea hobetuko du, eskola-adineko pertsonak lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitate-hezkuntzan eskolatzea erraztuz. 2016an, honako arlo hauetan jardutea aurreikusita dago:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan eskolatutako umeen presentzia mantentzea. 2. Bi sexuetako gazteek unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasketetara sarbidea edukitzea. Onuradunak eskola-adineko 2.200 neska-mutil dira. 		




Proiektua	<i>Oinarrizko osasuna eta saneamendua Nigerian</i>		Herrialdea	Nigeria
Emakumeak	500	GGKE	Zabalketa	
Laguntza	29.000,00 €	Guztira	58.000,00 €	
Laburpena		<p>Eskualde honetan izan da esku-hartzea: Ogun State, Ijebu-Ode herrian. Proiektuaren xedea da Nigeriako landa eremuetako gizarte zibila indartzea, beren garapen endogenoa berdintasunean egiteko. Esku-hartze honen irismenak azpiegiturretan eragina izateaz gain, inguruko jarduera osoan ere badu. Ondorioz, proposamenak irismen mugatua eta zehatza duen arren, hau da, ikastetxe batera eta oinarrizko azpiegiturretara mugatzen den arren, egiturazko beste gai batzuetan aurrera egin daiteke.</p>		

Proiektua	<i>San Miguel eta La Paz departamenduetako komunitateetan osasun- eta ingurumen-baldintzen osoko hobekuntza finkatu</i>		Herri aldea	Guatemala
Emakumeak	212	GGKE	Medicus Mundi Bizkaia	
Laguntza	29.000,00 €	Guztira	40.616,00 €	
Laburpena	<p>Proiektu honek jarraipena ematen dio eta finkatu egiten du osasun eta ingurumen arloko hobekuntza integraleko prozesua genero berdintasunean eta pertinentzia kulturalarekin Concepción Chiquirichapa, Quetzaltenangon. Komunitateko gaitasunak indartzen ditu, komunitatean osasun-ekintzak sustatu, nekazaritza jasangarria bultzatzen du, Udaleko instalazioen gaitasuna hobetu, herritarren parte hartzea sustatu eta artikulatzeko erakunde arteko espazioak sortu.</p>			

Proiektua	<i>Haur txiroentzako hezkuntza-zerbitzua jarri Santa María de Goretti ikastetxean</i>		Herri aldea	Peru
Emakumeak	200	GGKE	Perualde	
Laguntza	24.950,00 €	Guztira	50.584,00 €	
Laburpena		<p>Proiektuaren xedea da Santa María Goretti hezkuntza-erakundea eraikitzea eta ekipatzea, San Martín eskualdean, haurrak eskolatzeko eta irakasleak gaitzeko; azken 40 urteetan izandako iskanbila handien ondoren berreskuratzen ari den ingurua da; arlo askotan izan du eragina, baita hezkuntzan ere, funtsezko arloa baita pobrezia eta desberdintasuna murrizteko.</p>		

Proiektua	<i>Egoera zaurgarrian dauden haur eta nerabeen bizimodua hobetuz Tacna, II. fasea</i>		Herrialdea	Peru
Emakumeak	250	GGKE	Ayuda MAS	
Laguntza	24.600,00 €	Guztira	32.529,84 €	
Laburpena	<p>Esku-hartzea Tacna udalerrian garatzen da. Tacna probintziak 262.731 biztanle ditu, eta horien % 30 gizarteratzeko zailtasun kulturalak dauzkaten etorkinak dira. Beren integrazioa hobetu asmoz, emaitza hauek lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Adingabeek beren gaitasunak hobetzen dituzte, heziketa integralaren bidez. 2. Emakumeak buru, egoera zaurgarrian. 3. Komunitatea adingabeen eskubideak defendatzeko antolatuta dago. 			

Proiektua	<i>Landa eremuko emakume kooperatibistaren antolakuntza eta ahalduntzea San Miguel eta La Paz departamenduetako 4 komunitatetan.</i>		Herrialdea	El Salvador
Emakumeak	195	GGKE	Educo	
Laguntza	29.000,00 €	Guztira	36.669,80 €	
Laburpena			<p>Proiektuaren xedea da Maya Kaqchikel emakumeak indartzen jarraitzea politika, ekonomia eta gizarte arloan, beren kulturako berezko ekoizpen-sistema kooperatibisten bidez; sistema hauek ekonomia birbanatzaile ez kapitalistan oinarritzen dira, emakumeak ahalduntzen dituzte trebakuntza politikoari esker, ekonomia ere ahalduntzen dute Amarantoa merkaturatzeari esker eta familiako elikadura hobetzen dute, beren dietan untxiaren haragia sartuaz.</p>	

Proiektua	<i>Haur eta lehen hezkuntzako heziketa-zentro komunitarioa eraiki Bijilon</i>		Herrialdea	Gambia
Emakumeak	400	GGKE	Sunu Buga Buga	
Laguntza	29.000,00 €	Guztira	49.265,59 €	
Laburpena	<p>Proiektuaren xedea da komunitateko heziketa-zentro bat eraikitzea Bijilon, Gambian. Zentroan haur eta lehen hezkuntza emango lirake goizez eta ludoteka, topagunea eta tailerrak emateko tokia izango litzateke arratsaldean; era berean, zine emanaldiak egongo lirake larunbat arratsaldeetan komunitate osoarentzat.</p> <p>Botikina ere zentro honetan egongo litzateke goizez 8:00etan irekita; gainera komunitatearen zentroa izango litzateke eta bertan egingo lirake komunitateko batzarrak eta hainbat motako jarduerak.</p>			

Proiektua	<i>Kaqchikel emakumeak arbasoen balioak lehengoratzten, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardunbideen bidez, Sololá udalerrian, II. fasea</i>		Herri aldea	Guatemala
Emakumeak	93	GGKE	Entreamigos – Lagun artean	
Laguntza	29.000,00 €	Guztira	45.869,42 €	
Laburpena			<p>Proiektuaren xedea da Maya Kaqchikel emakumeak indartzen jarraitzea politika, ekonomia eta gizarte arloan, beren kulturako berezko ekoizpen-sistema kooperatibisten bidez; sistema hauek ekonomia birbanatzaile ez kapitalistan oinarritzen dira, emakumeak ahalduz dituzte trebakuntza politikoari esker, ekonomia ere ahalduz dute Amarantoa merkaturatzeari esker eta familiako elikadura hobetzen dute, beren dietan untxiaren haragia sartuaz.</p>	

Proiektua	<i>Ugalketako sexu-osasunaren arreta eta sentsibilizazioa hobetu, eskubideen, genero-berdintasunaren eta belaunaldi arloko ikuspegitik Larreynagan.</i>		Herri aldea	Nikaragua
Emakumeak	1.120	GGKE	Mugarik Gabe	
Laguntza	28.950,00 €	Guztira	39.274,40 €€	
Laburpena			<p>Proiektuaren xedea da, batetik, Larreynaga-Malapaisilloko emakumeek sexu eta ugalketa arloko oinarriko osasun-zerbitzuak eskura izatea giza papilomaren birusaren edota umetokiko minbizia eragiten duten zelulen diagnosia eginda duten emakumeen arretari jarraipena emanaz; patologia hau diagnostikatutako emakumeen jarraipena eta kontrola egin nahi da kontsultan. GPB diagnostikatutako emakume asko dagoenez, uste dugu beharrezkoa dela emakumeengan eragina duen birus honek minbizia garatzeko arrisku handia duen ikustea; hori dela eta, GPBren tipifikazio aztertzen jarraituko da, maneiatzeko berriazko protokoloa ezarri asmoz. Bestalde, komunitateko osasuna hobetu nahi da eta prebentzioan 24 urtez lanean aritu ondoren, Xochilt-Acalt zentrotik Ugalketa sexualaren osasunari buruzko azoka egin nahi dugu, biztanleria sentsibilizatzeko eskubideak azpimarratuz eta sexu bidezko transmisioak prebenitzearen garrantzia azpimarratuz.</p>	

Proiektua	<i>Dalit kastaren osasuna eta higiena sustatu Anekal Taluken</i>		Herrialdea	India
Emakumeak	691	GGKE	Taldeka Lagunduz	
Laguntza	12.000,00 €	Guztira	19.661,92 €	
Laburpena	<p>Osasun-proiektu hau proiektu zabalago baten barruan dago; Landa inguruko osoko ongizaterako Zentroaren (CIRW) proiektua da eta dalit kastako emakume eta gizonak ahaldundu nahi ditu beren eskubideak eskatu ditzaten. Zentroa lanean ari da herrixka batzuetan, eta osasun ona izatea, haurrak behar bezala elikatzea, ur edangarria izatea, saneamendua eta higiena zein beharrezkoak diren azpimarratzen die bertako biztanleei.</p>			

Proiektua	<i>Anantapurko 25 familia nekazariren egoera sozioekonomikoa hobetzea</i>		Herrialdea	India
Emakumeak	25	GGKE	Vicente Ferrer Fundazioa	
Laguntza	29.000,00 €	Guztira	45.169,17 €	
Laburpena			<p>Proiektu honen helburua da Anantapurko 25 familia nekazariren egoera sozioekonomikoa hobetzea, beren burua komunitatean antolatuta eta emakumeen parte-hartzea sustatuta, RDT/WDT tokiko aldearen laguntza eta gainbegiratzearekin. Laboreak dibertsifikatuko dira eta tanta-jario bidezko ureztatze-sistemak instalatuko dira lursailetan, dagoen uraren erabilera optimizatzeke eta lurraren emankortasuna hobetzeko. Era berean, uztak hazteko eta kudeatzeko prestakuntza teknikoa emango zaie.</p>	

2.2. VIII. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa

“XI. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa” egin zen ekainaren 22tik 26ra, Liburutegi Zerbitzuak antolatu zuen eta Garapenerako Lankidetzaz Sailaren laguntza izan zuen. Egun horietan, gutxi gorabehera 14.000 liburu saldu ziren, eta guztira 3.700 inguru pertsona bertaratu ziren. Argitalpenek askotariko gaiak jorratzen zituzten eta partikularrek liburutegiei egindako dohaintzetatik zetozen. Liburuak prezio sinbolikoan, gutxi gorabehera euro batean, jarri ziren salgai.

Proiektua	Todos Santos Cuchumatán bigarren hezkuntzako institutuko instalazioak hobetu		Herrialdea	Guatemala
Emakumeak	70	GGKE	Entreamigos – Lagun artean	
Bilduta	13.141,00 €			
Laburpena			<p>Todos Santos Cuchumatáneko bigarren hezkuntzako institutuan egiten da proiektua. Todos Santoseko INED hau da Todos Santos Cuchumatán udalerrian dagoen erdi mailako trebakuntza zentro publiko bakarra. Duela gutxi sortutako zentroa da, 2011n jarri baitzen abian sortzeko prozesu luze baten ondoren; Todos Santoseko hezkuntza-komunitateak zeresan handia izan zuen eta gaur egun oraindik ere gabezia batzuk ditu kalitatezko hezkuntza prozesu osoa eskaintzeko.</p> <p>Hori dela eta, lehentasuna du ikasleei beren trebeziak garatzeko tresnak eskaintzea eta autoformazioa eta ikerketa sustatzeko espazioak sortzea, hala nola, ikasteko eremu bat duen liburutegia eta zientzietako laborategia.</p>	

2.3. Euskal Fondoarekiko hitzarmena

Euskal Fondoak (Euskadiko Toki Erakunde Lankideen Elkartea) 1995ean eratu zen eta gaur egun 111 toki-erakunde biltzen ditu; Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 80 baino gehiago ordezkatzen dute, eta indar politiko guztietako ordezkariek hartzen dute parte.

Euskal Fondoaren helburuak honako hauek dira:

- Garapenerako lankidetzaz bultzatzea.
- Herritarren sentsibilizazioa.
- Erakunde-koordinazioa nazioarteko lankidetzan.

Getxoko udalbatzak, 2001eko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, Euskal Fondoari atxikitzea onetsi zuen. Getxok biztanle-kopuruaren arabera dagokion kuota ordaintzen du, eta udaleko lankidetzaz-aurerakuntzaren % 10 ematen du proiektuak finantzatzeko.

2015az geroztik Irantzu Uriarte dago Euskal Fondoko zuzendaritza batzordean.


2.3.1. 2016 proiektua

Proiektua	<i>Drain bat eraiki Guadalupe Barrio Yuri Ordoñez elizaren iparraldeko aldean.</i>		Herrialdea	Nikaragua
Emakumeak	1.400	Erakundea	Euskal Fundoa	
Diru-laguntza	51.000,00 €	Guztira	125.999,13 €	
Laburpena	<p>Udalerrria: Tipitapa. Managua departamendua. Tipitapa hiria hiriburutik, Managutatik, 22 km-ra dago. Haren lurralde-hedadura 721,50 hektarea dira, San Rafael eta Ciudadela hiri-inguruko herriguneak barne hartuta.</p>  <p>Tipitapa udalerrriak guztira 134.880 biztanle ditu; horietatik, % 38,1 landa-sektorean biltzen dira, eta % 61,9 hiri-sektoreari dagozkio. Tipitapa udalerriko biztanle guztietatik % 49,6 emakumeak dira, eta % 50,4, aldiz, gizonak; beraz, maskulinitate-indizea hau da: 1,01 gizon emakume bakoitzeko.</p> <p>Helburuak: Beherako eta arnas eritasunen intzidentzia murriztea haurrengan eta sektore zaurgarrietan / Euri-urek eragindako kalteei aurrea hartzea / Bide-azpiegitura eta irisgarritasuna sendotzea.</p> <p>Laburpena: Hainbat urtetarako proiektu baten lehenengo fasea. Juan Castro eta Aleyda Delgado auzoetan 860,09 ml-ko euri-drainatzea eraikitzean datza, euri-urek hiriguneko 6 auzotan eragiten dituzten kalteak murrizteko helburuarekin. Eskuragarri dagoen bideoa: https://vimeo.com/121137619)</p>			

2.4. Garapenerako lankidetzaren proiektuen banaketa geografikoa


Ondoren, 4. grafikoan, 2016an finantzaturako proiektuen banaketa ageri da, eremu geografikoen arabera¹.

4. grafikoa



Ikus daitekeen moduan, 2016ko proiektu gehienak Erdialdeko Amerikan garatu dira, zehazki, Nikaraguan eta Guatemalan. Jarraian Afrikakoak leudeke, gehienak Kongoko EDkoak. Amaitzeko Hegoaldeko Amerika eta Asia leudeke, ia parean, eta esku-hartzeak Perun eta Indian kontzentratuta. Jarraian, 5. grafikoan ehuneko-adierazpidea aurkeztuko da, egindako esku-hartzeen esparru geografikoen arabera.

5. grafikoa



¹ Garapenerako Lankidetzaren Sailaren beraren aurrekontu-partidaren zenbatekoak baino ez dira sartu; beraz, Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioan bildutakoa ez da datuetan islatzen.

Ehunekoen banaketari dagokionez, %75 baino gehiago Erdialdeko Amerikan eta Afrikan kontzentratzen dira, eta gainerakoa oso banatuta dago Asian eta Hegoaldeko Amerikan. Ehunekoetan hazkunderik handiena Afrikan izan da, bere pisu erlatiboa ia bikoiztu egin baitu.

III. GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO EDOTA SENTSIBILIZAZIORAKO PROIEKTUAK

Sentsibilizazio-proiektuen baldintzatzaile nagusiak diru-laguntzen deialdiak eta zuzeneko betearazpenak dira, batez ere XVII. Getxotik Mundura Mundutik Getxora bidez egindakoa.

3.1. Diru-laguntzen deialdia

2016. urtean, hiru proiektu finantzatu dira diru-laguntzen urteko deialdiaren bidez. Zehazki, hauek dira finantzatutako proposamenak:

Proiektua	<i>SolidaridUp – II. fasea</i>		
Herria	Getxo	GGKE	Zabalketa & San Martín de Tours
Laguntza	19.000,00 €	Guztira	27.742,00 €
Laburpena	<p>Proiektuaren asmoa da Getxoko enpresa- eta merkataritza-sektorearen prestakuntza eta parte-hartze aktiboa bultzatzea, elkartzaren balioaren eta garapenerako lankidetzaren mesedetan, bi estrategia hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalaren, GGKEen eta saltokien artean prestakuntzarako eta lanerako topaketak egitea. • Garapenerako lankidetzaren alde Udalak egiten duen lana zabaldu eta jendarteratzea, saltokien eta Getxo Moda lehiaketaren bidez. 		



Proiektua	<i>Ahalduntutako herritarrak Getxon: ikus-entzunezko tresnak, garapen jasangarria sustatzeko</i>		
Herria	Getxo	GGKE	KCD
Laguntza	17.000,00€	Guztira	27.325,11 €
Laburpena	 <p>KCD GGKEaren proiektu honek zinema sozialeko jarduerak hartzen ditu barnean, nazioartekoak, esate baterako “Film Sozialak” zinema ikusezineko jaialdia. Helburua da getxotarrak sendotzea, gizarte aktiboa, konprometitu eta giza garapen iraunkor eta bidezkorako gaitasun kritikoa duena izatea lortzeko. Garapenerako komunikazioa herritartasun kritikoa eta politikoki aktiboa eraikitzeko estrategietan gero eta gehiago sartzen den tresna da. Zinema sozialak zentzu horretan lan egiteko bidea ematen du, arlo guztietan: sentsibilizazioan, garapenerako heziketan eta trebakuntzan.</p> <p>Informazio gehiago: https://vimeo.com/190078426</p>		

Proiektua	Dame 1 minuto de Refugio		
Herria	Getxo	GGKE	UNESCO Etxea
Laguntza	10.037,00 €	Guztira	16.914,36 €
Laburpena	<p>"Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa." (13. artikulua, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala)</p> <p>"Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea." (14. artikulua, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala)</p> <p>Kalkulatzen denez, gaur egun 50 milioi lagun inguruk behar dute nazioarteko babesa, errefuxiatuak, aberrigabeak eta tokiz aldatuak dira, gatazken, miserien eta indarkeriaren ondorioz. Eta uste da gaur egun 60 milioi lagun baino gehiago daudela beren etxeetatik lekualdatuta gerraren, indarkeriaren eta beren oinarritzko eskubideak larri urratzearen ondorioz.</p> <p>Proiektu honekin UNESCO Etxeak gizarteari jakinarazi nahi dio Giza Eskubideen Aldarrikapeneko 13. eta 14. artikulua urratu egiten direla eta gizarteari jakinarazi nahi dio aldarrikapen horren zenbaterainoko garrantzia duen.</p> <p>“Dame un Minuto de Refugio” lehiaketako bideoak hemen eskuratu daitezke: https://www.youtube.com/playlist?list=PLVpRlgPG0eJmBuuP5dfMBHcclpDSKJ8Mz</p>		




Proiektua	Heziketaren aldeko mundu mailako kanpaina		
Herria	Getxo	GGKE	Educo
Laguntza	13.000,00 €	Guztira	17.283,55 €
Laburpena	 <p>Heziketaren aldeko mundu mailako kanpaina Getxon egitea da proiektuaren xedea eta hurrekin, gazteekin eta herritarrekin, oro har, errebindikatzea mundu guztiak duela kalitatezko heziketa izateko eskubidea. Herritarrak eta komunikabideak sentsibilizatzea da proposamenaren helburuetako bat; hezkuntzaren mundu egoeraz sentsibilizatu nahi da, ikasleak eta hezkuntzako eragileak trebatu gaian, gizartea mobilizatu eta gure eragile politikoen aurrean eragina izan.</p>		


3.2. Zuzeneko betearazpena

3.2.1. Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2016

Azaroaren 30a eta abenduaren 23a artean Getxotik Mundura Mundutik Getxora XIX. Lankidetzaz Topaketa egin zen. Edizio honen ardatz nagusia Getxo Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiri gisa onartzearen ospakizuna izan zen; beraz, Bidezko Merkataritzaren inguruko jarduerak izan ziren nagusi. Igandeko GGKEen Azokan egindako berezko jardueraz gain, topaketak erakusketa bat eta zine-forum saio bi izan zituen.

Proiektua	Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2016. XIX. Topaketa		
Herria	Getxo	Laguntzaileak	Getxoko Kultur Etxea eta BBK.
Zenbatekoa, guztira	35.428,00 €		
Laburpena	 <p>Getxo udalerrian gizarte-gaien inguruko jai-eremu bat sortzea da helburua. Bertan, lankidetzaz-arloan lan egiten duten tokiko erakundeek parte hartuko dute, batez ere umeentzako jarduerekin, garapenerako lankidetzako proiektuetara bideratutako funtsen erabilera hurbilagoetik erakusteko herritar guztiei. Elkartzunaren inguruko jarduerak garatzen diren guneak sortzen jarraitu ez ezik, generoen arteko ekitatean eta garapenerako lankidetzan eragiten duen ikuspegi bat lantzeko asmoa ere bada. Honako hauek dira helburu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Getxoko herritarrei udalerrian laguntzen duten GGKEen berri ematea, jolaserako gune baten barruan. - Biztanleei Saharako herria dagoen egoera jakinaraztea. <p>2016ko edizioak honako berrikuntza hauek eduki ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Azaroaren 24an izan zen Getxon European Days of Local Solidarity-ren 1. edizioa; Paris, Erroma, Bartzelona, Vizdeme eta Getxon ospatu zen egun hau. Jardunaldi hau Euskal Fondoarekin eta Plataforma europar sarearekin batera antolatu zen. ✓ Abenduaren 2tik 4ra arteko zubian Getxoko 60 tabernak eta jatetxek Bidezko Merkataritzako kafea eta kakaoa eskaini zituzten; horrela, herritarrek produktu horiek ezagutzeko eta dastatzeko aukera eduki zuten. ✓ Abenduaren 2an Kultur Etxean antolatutako zine-forumean “Los Caballos de Dios” filma eman zen http://dai.ly/x2sjiez eta ondorengo eztabaida Unesco Etxeak dinamizatu zuen. ✓ Abenduaren 4an GGKEen Azoka egin zen; bertan, zenbait lantegi egiteaz gain, Malagasy Gospelen emanaldia izan zen. Parte hartu zuten GGKEen irudiak eta iruzkinak hemen:https://youtu.be/l6Xnou4piUU ✓ Abenduak 16, zine-foruma, Temps D'Écoute, Kongoko emakumeen osasun-eskubideak lortzeko borrokari buruz. <p>Topaketen informazio zehatzagoa hemen: http://www.getxo.eus/es/cooperacion-al-desarrollo/actividades-y-campanas/getxotik-mundura</p>		

3.2.2. Getxotik Mundura jokoak



Getxotik Mundura bideko-jokoak elkartasunezko proiektu batean parte hartzeko aukera eskaintzen du. Pantaila batetik bestera igarotzeko, jokalariek elementu batzuk bildu behar dituzte eta elementu horiek guztiak beharrezkoak dira premiazko giza-laguntzako pakete bat osatzeko. Pantaila bakoitzean egin beharreko zereginak egindakoan, munduko osasun, hezkuntza... eskubideen egoerari buruzko informazioa emango da, udalerriko GGKEek lana egiten duten arloei buruzko informazioaz gain. Helbide honetatik sartu daiteke jokoan,

<http://getxotik.org>, eta ordenagailutik, tabletetik edo telefono mugikorretik sartu daiteke.

Lantaldeko GGKEen lankidetzari esker egin da jokoak, talde horiek parte hartze aktiboa izan baitute. 2017ko urtarrilean sarean sareko Europa mailako lankidetzaren arloko aldizkari elektronikoen erreferenteak, *Platformak*, bere interesa adierazi du. Erakunde honetan lankidetzako euskal erakundeak daude, Euskal Fondoa eta Katalunia, Austria, Frantzia, Italia, Suedia eta Commonwealtheko herrialdeetako bere parekideak daude. Bere xedea da lankidetzaren arloko mezu bateragarria helaraztea, sareko lana sustatzea eta Europako udalerriri eta eskualdeen esku-hartzea sustatzea garapenerako lankidetzaren programetan; baita gizarte zibilarekin harremanak indartzea ere. Bestalde, teknologia berrietan trebatzeko udalerriko zentroek, KZguneek, ere ematen dute jokoaren berri eta laster erabiliko dute Internet erabiltzeko saioetan.

3.2.3. Hegoafrikako ikasleen harrera

2016ko urriaren 4an, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Hegoafrikako ikasle batzuei harrera egin zitzaion. Hain zuzen, Nuestra Señora de Europa ikastetxeko ikasleek urte hasieran egin zieten bisita itzultzen ari ziren ikasleak ziren. Hegoafrikako ikasleak Bafokeng komunitateko kideak dira, Lebone II ikastetxean ikasten dute eta bi aste eman zituzten Nuestra Señora de Europa ikastetxeko familien etxeetan.



3.2.4. Bidezko Merkataritza

2012ko azaroan, Getxoko Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren sinestamendua jaso zuen. Hain zuzen, Bilborekin batera, Euskadiko lehenengoa izan zen. Bidezko Merkataritzaren aldeko hiria

izateak esan nahi du hiri eredu jakin bat aitortzen dela eta hiri horretan eragileek (gizarte erakundeek, sektore publikoak eta pribatuak) beren egiten dituztela Bidezko Merkataritzako printzipioak eta gainera zenbait ekimen egiten dituztela hori sustatzeko.

2016an, nabarmendu beharreko lehenbizikoa da Bidezko Merkataritzaren estatusa berritzea, 2014an egindako lanean oinarrituta.

2016an egindako jarduera nagusiei dagokionez, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

3.2.4.1. Orientazio Ibilbidea

Ekainaren 11n, Itxartu Taldeak antolatuta, orientazio ibilbide bat egin zen Getxon. Ekitaldi horrek zabalkunde handia izan zuen. Izan ere, 250 pertsonak parte hartu zuten, eta Bidezko Merkataritzako eta ekologikoko kamisetez hornitzeko akordioa egin zen; kamisetek ekitaldiaren izena ez ezik Getxo Bidezko Merkataritzaren Aldeko Hiriaren logoa ere bazeramaten. Horren eragina ezin hobetzat jotzen da, Bidezko Merkataritzako beste produktu batzuk ezagutzea ahalbidetu zuelako eta eragina udalerrri osoan lortu zelako, jarduera auzo guztietan zehar ibili baitzen.



3.2.4.2. Getxo Bidezko Merkataritzako kafearekin eta kakaoarekin esnatzen da



Getxotik Mundura Mundutik Getxora zela-eta, bigarren urtez jarraian, bidezko merkataritzako kafea eta kakaoa bai ostalaritzako establezimenduetan bai herritar orenen artean ere ezagutarazteko ekimena egin zen.

Horretarako, erreferentzia moduan hartu ziren Areetako Metro Geltokia plazaren alboko kaleak (plaza horretan zen egitekoa Getxotik Mundura Mundutik Getxora GGKEen azoka). Algorta, Romo eta Areetako 60 taberna eta jatetxek egin zuten bat ekimenarekin, eta, hartara, abenduko zubian (2a eta 4a barne), bidezko merkataritzako kafea eta kakaoa

eskaini zieten bezeroei. Ekimena gauzatzeko, parte hartu zuten establezimenduak identifikatu ziren, eta tabernetako bezeroei txartel bat eman zitzaizen informazioa emateko. Zehazki, jakinarazi zitzaizen hartzen ari ziren kafea edo kakaoa bidezko merkataritzakoa zela, eta ekimena Getxo Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren jardueren barnean zegoela.

3.2.4.3. Bidezko merkataritzako saskia banatzea

Getxotik Mundura Mundutik Getxora zela-eta, “Getxo Bidezko Merkataritzako kafearekin eta kakaoarekin esnatzen da” kanpainari atxiki zitzaizkion tabernetan kontsumitu zutenen artean bidezko merkataritzako eta bertan ekoiztutako produktuak zituen saski bat zozkatu zen. Yanik tabernan egin zen saskia emateko ekitaldia: Irantzu Uriarte lankidetzako ardura duen zinegotziak edizio honetako irabazleari eman zion.



3.2.4.4. Erosketa publiko arduratsua

Garapenerako Lankidetzako Sailak Getxoko Udaletik erosketa publiko arduratsua bultzatzen saiatzen den lantaldean parte hartzen du.

Talde horretan udalerriko zenbait alor daude, hala nola: Berdintasuna, Kontratazioa, Getxolan, Getxo-Kirolak eta Lankidetzak.

2013an egindako lanaren emaitza izan zen REAS Euskadirekin (Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) hitzarmen bat sinatzea, ekonomia solidarioa bultzatzeko eta erosketa publiko arduratsua sustatzeko.

Herri-administrazioak zenbait arlotan (hala nola enplegua, berdintasuna, gizarteratzea, ingurumenaren babesa...) ekintza positiboak gauzatzeko kontratatzerakoan dauzkan tresnak dira gizarte-klausulak, Kontratuen Legeak ezartzen dituen baldintzen barruan.

Lankidetzak honek zenbait fase ditu: 2007-2012 aldian udalean sartu diren gizarte-klausulak aztertzea, aipatutako klausulen ezarketa sistematizatzen duen instrukzio bat egitea, teknikariak trebatzea eta emaitzak zabaltzea.

Kontratazio publikoko agirietan zenbait irizpide sartzeko urteko helburuak ezarriko dira, bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea, Bidezko Merkataritza eta abar sustatzeko.

3.2.4.5. Trakzio-taldea

Arestian aipaturiko jarduerak garatzeko, Getxon horiek bultzatzen dituen trakzio-talde bat dago, zenbait elkarte eta Lankidetzak Sailaz osatua. Erakunde hauek hartu dute parte: Peralde, Educo, Schams, Emakumeon Ahotza, Gazteen Gurutze Gorria, Mercadeco eta Emaus Gizarte Fundazioa.

Talde heterogeneoa da, lankidetzatik, gazteriatik, berdintasunetik eta immigraziotik etorritako erakundeak biltzen baititu, eta, horri esker, egiten diren proposamenak ahalik eta aberasgarrienak dira.

3.2.5. European Days of Local Solidarity: Kontsumo eta ekoizpen-eredu iraunkorrak sustatzea tokian-tokian



Azaroaren 24an izan zen Getxon European Days of Local Solidarity-ren lehenengo edizioa eta Erroma, Paris eta Vidzeme hiriek ere hartu zuten parte. EDLS eskualde eta nazio mailako jardueren kanpaina da, modu autonomoan antolatutako jarduerak izaten dira eta lankidetzaz deszentralizatuak agenda globalean zeresan handia izan behar duela uste dute, herritarrak informatu eta hitzeman beharra baitago, tokiko erronkak eta helburu globalak lotzeko. Azaroaren 12tik 24ra egin ziren jarduerak. Getxoren kasuan Garapen Iraunkorreko 12. helburua azpimarratu zen.

Getxoko Udalak, Euskal Fondoak eta Platformak antolatu zuten jardunaldia.

Jardunaldiko parte hartzeen bideo-laburpena da hau: <https://vimeo.com/193527893>

50 lagunek hartu zuten parte jardunaldian.

3.2.6. Jambo Amani?

“Jambo Amani?” dokumentalak, (Bakerik badugu?), UNESCO Etxeak finantzatuak eta Unai Aranzadi getxotarrak errealizatuak, bi sari entzutetsu jaso zituen 2014an:

- Film Labur Dokumental Onenarentzako Zilarrezko Remi Saria, Houston (AEB).
- Film Labur Onena Bartzelonako Zinema eta Giza Eskubideen XI. Jaialdian.

Nazioarteko jaialdi batzuetan ibiltzeaz gain, azpimarratu behar da “Jambo Amani?” dokumentalak Donostiako Giza Eskubideen XII. Zinemaldian eta Bilboko Film Sozialak VI. Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdian modu nabarmenean parte hartu zuela.



2015ean, Jambo Amani?ren ibilbidea ez zen eten eta, mundu osoko zinema jaialdietan ibiltzeaz gain, sari hauek eskuratu zituen:

- Ikus-entzuleen saria R Ejects Radicals jardunaldietan, Rotterdamgo Zinema Jaialdiaren barnean (Holanda).
- Bideo dokumentalaren lehen saria, kategoria profesionalean, Mexikoko Irudiaren Nazioarteko Jaialdian.
- Boliviako Nazioarteko Zinema eta Giza Eskubideen XI. Jaialdian dokumental onenaren saria.
- Giza Eskubideen Nazioarteko Zinema Jaialdia FICDH (Argentina) Pukañawi Lehenengo Saria.

2016an dokumentalaren nazioarteko ibilbidea amaitu dela esan daiteke, guztira mundu osoko 40 jaialdi baino gehiagotan aukeratu dute Jambo Amani? (Etiopian, Australian, Indian, Egipton, Eslovenian, Iranen, Ukrainan...).

Gainera, erakunde zenbaiten trebakuntza programetan ere erabili da dokumentala, hala nola, Suediako Gurutze Gorrian eta Amnesty Internationalen, eta unibertsitate ugartan eman da.

Dokumentala helbide honetan ikusi daiteke: <http://www.getxo.eus/es/cooperacion-al-desarrollo>

3.2.7. VIII. Nazioarteko Zinema Ikusezinenaren Jaialdia, "Film Sozialak": Aipamen berezia dokumental honi: "Anekaleko Balajyhoty Hostelak", Taldeka Lagunduz

Taldeka Lagunduz-ek Getxon du egoitza eta "Euskarazko lana" atalean epaimahaiaren aipamen berezia lortu zuen dokumental honekin: Vijayapura... bidegabekeriaren zaparrada.



Dokumental honek Garapenerako Lankidetzaren Sailaren laguntza izan zuen.

Dokumentalean ikusten da Vijayapuram, Karnataka (India) zenbait kasta, adibidez dalit kasta, bidegabeko egoeran bizi direla, batez ere emakumeak eta neskatok, herriko gizonezkoen sexu-grina asetzera behartuta baitaude. Emakume hauei Debadasi esaten zaie, tenpluko zerbitzariak. Gaur egun Indiako gobernuak praktika hauek

galarazi dituen arren, iraun egiten dute. Esteka honetan dago dokumentala: <http://getxo.eus/es/cooperacion-al-desarrollo/actividades-y-campanas/documentalescoop>

Bestalde Unai Aranzadi getxotarraren "Nevertheless, Al Quds" (trailer: <https://vimeo.com/108187225>) dokumentalak lortu zuen euskarazko lanik onenaren saria. 31 minutuz palestinarren erresistentzia eta duintasuna erakusten digu israeldarren okupazioaren aurrean eta horretarako Alex Orbe getxotarraren lankidetzaren ere izan du, laneko animazioak berak egin baititu.

IV. HARRERA


Getxoko Udalaren harrera-proiektuak 1996an sortu ziren, “Oporrak Bakean Programarekin”, Saharako umeak uztailean eta abuztuan gure artean bizitzera ahalbidetzen baitu.

2003tik, Getxoko familiek Saharako umei ez ezik Europa Ekialdeko haurrei ere egiten diete harrera udan. Ekialdeko haurrak bi arrazoi nagusigatik etortzen dira, batez ere: batzuek Txernobylgo tragedia jasan dute (eta hein handian oraindik jasaten ari dira), eta besteak nagusiki Errusiako umezurztegietatik datozen gaztetxoak dira.

Kasu biak Getxoko herritarren elkartasunaren adibide argia dira; hain zuzen ere, 2016an berriro ere erakutsi dute Getxon harrera oso errotuta dagoela.

6. grafikoan daude 2013az geroztik Europa Ekialdeko eta Saharako haurren harreran egondako eboluzioa. Ikusten denez, haurrik gehien 2013an etorri ziren, 29 gaztek igaro baitzuten uda gure artean. 2016an, pixka bat gutxitu zen harrera-kopuru osoa eta 13 izan ziren.

6. grafikoa



4.1. Diru-laguntzen deialdia

2016ko deialdiaren bidez, diru-laguntza eskatu duten erakundeak finantzatu dira, kasu honetan, Ukraina Gaztea eta Bikarte.

Proiektua	<i>Txernobylgo erradiazioak ukitutako Bielorrusiako umeen harrera</i>		
Herrialdea	Ukraina	GGKE	Ukraina Gaztea
Diru-laguntza	400 €	Guztira	9.000,00 €
Laburpena	Ukrainatik datozen eta Txernobylgo zentral nuklearrean sortutako erradiazioek ukitu zituzten 16 ume familietan hartzean datza proiektua. Zehatz-mehatz, adingabeak Irpen eta Ivankiv eremutik datoz; herri hori zentralerako hormatik 7 kilometrora dago. Getxo udalerriko familia batek adingabe bat hartu du.		

Proiektua	<i>Errusiako eta Bielorrusiako umeen aldi baterako harrera</i>		
Herrialdea	Errusia	GGKE	Bikarte
Diru-laguntza	800,00 €	Guztira	142.950,00 €
Laburpena	Errusiako eskualde hauetatik datozen 86 ume eta 2 arduradun familietan hartzean datza proiektua: <ul style="list-style-type: none"> • Murmansk • Mendebaldeko Siberia. • Volgograd. • Briansk. • Krasnoyarsk. Getxoko 2 familiek 2 adingabe hartu dituzte.		

4.2. Getxo Pro Sahara ATFAL elkartearekiko hitzarmena

Lehenik eta behin, esan behar da 1994tik aurrera Getxoko Udala Bir Ganduz dairarekin senidetuta dagoela. Erabakia 1994ko ekainaren 24an hartu zen. Beraz, Getxok Sahararekin duen lehentasunezko harremana senidetze horren bidez erabaki zen.

1996tik hona, Getxo udalerriko familietan saharar umeen oporren programa egiten da (1998. urtean soilik eten zen, erreferenduma egingo zutelakoan). Aitzitik, 1999an, proiektuak jarraipena izan zuenez, lankidetzaz-hitzarmena formalizatu zuten Getxo Pro-Sahara ATFAL elkarteak eta Getxoko Udalak. Elkarteak programa kudeatzeko eta antolatzeko ardura hartu zuen.

Programak udaleko beste sail eta erakunde batzuen laguntza dauka; Getxo Kirolak-ek emandako laguntza eskertzekoa da, haurrak igerilekura laguntzaile batekin sartzea baimentzen baitu “abonamendu bigunen” bidez. Ekimen hori Europako ekialdetik datozen haurrei ere aplikatzen zaie.

Azken urteotako datuak alderatuta, Getxora etorri diren adingabeen kopurua egonkor samar mantendu da, eta hartutako 16 eta 10 adingaberen artean ibili dira datuak.

2016ko harrerari dagokionez, ondoren datu interesgarrienak laburbilduta aurkeztuko dira:

Proiektua	Oporrak Bakean Programa		
Herrialdea	Saharako errefuxiatuen Tindufeko kanpamentuak, Aljeria		
GGKE	Getxo Pro Sahara ATFAL		
Diru-laguntza	15.000,00 €	Zenbatekoa, guztira	20.000,00 €
Laburpena	<p>Oporrak Bakean programa EAE osoan egiten da. Hori dela-eta, 452 ume inguru etortzen dira Euskadira.</p> <p>Programaren berariazko xedea da Saharako ume-talde baten kultura zabaltzea eta osasuna hobetzea, Saharako herriaren egoeraren berri ematea eta kultura-trukea egitea, ume horiek Getxoko familietan hartuz. Haiek dira lortu nahi diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Saharar umeak aukeratu diren getxotar familietan biziko dira uztailean eta abuztuan. 2. Saharar umeek orain arte liburuetan baino ikusi ez dutena (itsasoa, mendia, belarra, eraikinak, txorrotak, teknologiak, itsasoan edo igerilekuan bainatzea) ezagutuko dute, gaztelaniara zein euskarara hurbilduko dira eta hizkuntza horietan sakonduko dute. 3. Osasun-arazoak detektatu eta tratatu ahalko dira. 4. Gure kulturaren eta sahararren kulturaren artean elkarrekintza gertatuko da. <p>2016an 7 adingabe hartu zituzten Getxoko familiek.</p>		



4.3. Zuzeneko betearazpena

Saharako eta Europako ekialdeko umeen harrera dela-eta eta getxotar familiek haiekin euren denbora eta oporrak partekatzeko udako bi hiletan (uztailean eta abuztuan) egiten duten ahalegina eskertzeko helburuarekin, udaletxean harrera bat egin zitzaien umeei eta familia hartzaileei



Harrera Getxoko udaletxean, 2016

Topaketa 2016ko uztailearen 7an egin zen, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta alkatea eta Udalbatza eratzten duten alderdi politiko guztietako ordezkariak izan ziren.

Ekitaldiaren ebaluazioa positiboa izan zen. Izan ere, batetik uda gure artean ematen duten umeak hobeto ezagutzea eta haiengana gehiago hurbiltzea lortu zen, eta, bestetik, umeok etxean hartzen dituzten familiei egiten duten lan solidarioa eskertu zitzaien.

V. EKINTZA HUMANITARIOA


2016an, ekintza humanitarioko hiru esku-hartze egin dira.

5.1. Sahararekiko Elkertasunezko Euskal Karabana


Proiektua	Sahararekiko Elkertasunezko Euskal Karabana		
Herrialdea	Saharako errefuxiatuen Tindufeko kanpamentuak, Aljeria		
GGKE	Getxo Pro Sahara ATFAL		
Data	2016ko maiatza	Diru-laguntza	21.000,00 €
Laburpena	<p>Karabanak saharar errefuxiatuen elikadura-segurutasuna indartzea du helburu, errefuxiatuen osasunerako eta ongizaterako giltzarria baita. Aldi berean, barne-helburu bat dauka: Euskadiko biztanleek karabana solidarioan lagundu dezatela, elikagaiak eta osasun-produktuak emanez. Batez ere umeak eta nerabeak sartu dira eta, horretarako, gure erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatuetan elikagaiak biltzea proposatzen da. Hauek dira karabatanik lortu nahi diren emaitzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Saharako nutrizio-arloko prebentzio-egitura indartzea. • Saharako Ilargi Gorriaren ibilgailuak osatzea. <p>Getxoko Udalaren laguntza humanitarioaren bidez, Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara elikagaiak eta higie-ne-produktuak helarazteko garraio-kostuak finantzatzen dira.</p>		



5.2. Siriako krisia

Proiektua	Siriako krisia. Jordanian dauden siriarr errefuxiatuei arreta.		
Herrialdea	Siriako errefuxiatuen Za'atariko kanpamentuak, Jordania		
GGKE	Unicef		
Data	2016ko apirila	Diru-laguntza	6.000,00 €
Laburpena	 <p>Getxoko Udalak premiazko laguntza eman du Za'atari errefuxiatu-eremuan dauden siriarrrei laguntzeko; 2011z geroztik dagoen gerraren ondorioz errefuxiatutakoak dira eta 6,5 miloi pertsona lekualdatu dira. Horien erdiak haurrak dira eta ez dute oinarrizko osasun, hezkuntza eta babes zerbitzurik. Laguntzaren xedea da errefuxiatuen oinarrizko beharrak estaltzea; oraingo honetan ur edangarria erosi da, higie-ne sustatu eta ura eta hornigaiak mantendu dira, baita ur edangarriaren instalazioak hornitu ere.</p>		

5.3. Lurrikara Ekuadorren

Proiektua	<i>Komunitatea berreraiki: Ekuadorren lurrikarak egindako kalteetarako laguntza</i>		
Herrialdea	Manta, Manabí, Ekuador		
GGKE	Ayuda MAS		
Data	2016ko ekaina	Diru-laguntza	6.000,00 €
Laburpena	<p>Río Manta tokiko taldearen lankidetzarekin garatzen ari den proiektuko (98.400 euro guztira) esku-hartzea da, beren instalazioak berreraiki beharra baitaude eta horrela osasun zerbitzua eskaini, lagun egin eta inguruko gizarte sarea indartzen lagundu. Instalazioan kalteak egin zituen 7,8 graduko lurrikarak; lurrikara horretan 663 lagun baino gehiago hil ziren, 6.274 baino gehiago zauritu, 9 desagertu eta 22.754k aterpea behar izan zuten.</p>		
			

VI. GETXOKO GGKE-AK SENDOTZEA

2016an, garapenerako lankidetzako esparruan lan egiten duen Getxoko elkarte-sarearen premiak ikusita, udaleko Lankidetzaz Sailak bosgarren aldiz diru-laguntza deialdi bat antolatu zuen udaleko elkarte-sarea indartzeko asmoz.

Helburua Getxoko GGKEen funtzionamendu-gastuak eta kudeaketa hobetzeko gastuak zati batean finantzatzea da, modu horretan udaleko elkarte-sarea sendotzeko.

Diru-laguntza ildo horri onura ateratzeko betekizunen artean honako hauek daude: udalerrian egoitza operatibo bat edukitzea eta getxotarrek horretarako sarbidea edukitzea.

Diru-laguntzen deialdi honetan 14.874 euro eman dira honelako gastuak estaltzeko: langileenak, ohiko gastuak, publizitate eta propaganda gastuak, prestakuntza gastuak eta erakundeen kudeaketaren kalitatea hobetzeko gastuak.

Guztira zazpi erakunde aurkeztu ziren deialdira, eta honako hau izan zen banaketa:

GGKE / ONGD	Diru-laguntza
Zabalketa	5.000,00 €
Educo	1.883,67 €
Perualde	1.465,00 €
Getxo Pro Sahara ATFAL	1.959,60 €
Toursko San Martin	935,35 €
Taldeka Lagunduz	514,68 €
Entreamigos – Lagun Artean	5.000,00 €

VII. BESTE JARDUERA BATZUK

Lehen aipatutako proiektuez gain, Lankidetzaren Sailak jarduerak batzuetan lagundu edo zuzenean esku hartu du edo lankidetzaren politikak koordinatzeko zenbait forotan parte hartu du.

Egindako jardueren artean, Getxoko Udalarekin azken urteetan elkarlanean aritu diren aurkako alderdiek egin dituzten bisitak azpimarratu behar dira, bai eta hegoaldeko beste erakunde batzuek egindakoak ere, hain zuzen, Euskadin daudela aprobetxatuz egokia iruditu baitzaie Lankidetzaren Sailarekin biltzea egiten ari diren lana ezagutzera emateko.

7.1. Egin diren bestelako jarduerak

Kronologikoki, Lankidetzaren Sailak jarduerak hauetan parte hartu du edo laguntza eman du zuzenean:

- Otsailean, udaletxean Saharako bandera jartzea.
- Martxoan, Euskal Fondoaren ohiko batzarra Getxon.
- Irailean, Getxo Folk, gune solidarioa.
- Azaroan, Gizatiarrek Kongoko Errepublika Demokratikoaren alde antolatutako azoka solidarioan laguntzea.
- Abenduan, San Martín de Tours misio-taldeak Kansenaren alde antolatutako azoka solidarioan laguntzea.

VIII. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO LANTALDEA

Getxoko Udalak 2004tik Garapenerako Lankidetzako Lantaldea dauka sortuta, eta aldiari behin harekin biltzen da.

Lantaldea kontsultarako organoa da. Bertan, garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten gizarte-zerbitzuen sentsibilizazioa eta konpromisoa bilatzen dira. Gainera, herri-administrazioak maila guztietan gai horretan burutzen dituen ekintzak, hala nola ekimen solidarioak edota herritarrek oro har egiten dituzten ekimenak, koordinatzen ditu:

Lantaldeak funtzio hauek ditu:

- Udalerrian dauden erakundeak ordezkatzea.
- Lankidetzaz Sailari gai horretan udalerrian esku hartzean izan behar dituen lehentasunei eta egon daitezkeen premiei buruzko aholkuak ematea eta administrazioak gai horretan aztertu ditzakeen beste kontu batzuen inguruan ere aholkatzea.
- Egoki irizten dieten txostenak, iradokizunak, azterlanak eta proposamenak egitea.
- Lankidetzari buruz udalerrian sortzen diren ekimenen arteko koordinaziorako bide izatea.

2016an, Garapenerako Lankidetzako Sailak ez ezik honako erakunde hauek parte hartu dute lantaldean:

Getxo Pro-Sahara ATFAL, Ayuda MAS, Biladi, Ecce Romo, Educo, Entreamigos - Lagun Artean, Mary Ward fundazioa, Medicus Mundi Bizkaia, Mugarik Gabe, Perualde, San Martín de Tours misio-taldea, UNESCO Etxea, Taldeka Lagunduz, Zabalketa; beraz, taldea 14 GGKEk osatu dute.

Jorrotutako gaien artean, hauek azpimarra daitezke:

- ✓ 2015eko Getxotik Mundura Mundutik Getxora ekimenaren baterako ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.
- ✓ 2016ko diru-laguntzen deialdia.
- ✓ Getxo udalerrian egoitza operatiboa daukaten GGKE-en gastu arruntetarako diru-laguntzen deialdia.
- ✓ Premiazko laguntza Siria eta Ekuadorri.
- ✓ Getxotik Mundura Mundutik Getxora, XIX. edizioa, prestaketa.

Guztira hiru bilera egin dira 2016an:

Bileraren data		Bertaratutako GGKEak	Aztertutako gaien kopurua
16/02/02		12	6
16/06/14		7	6
16/09/19		14	5
16/11/09		13	4
GUZTIRA	4 bilera	46	21 gai aztertu ziren
Batez bestekoa		11,5 (%82,14%)	5,25